



AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutz 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, gizartea, 7. zenb., 2009ko iraila

Inmigrazioa

GOIERRI KOLORE Kulturarteko Topaketa. Urriaren 28tik Azaroaren 8ra

- Goierri bizi garen etorkin eta bertakoen artean elkar ezagutzeko espazioak sortu asmoz, aurten ere *GOIERRI KOLORE Kulturen Arteko III. Topaketa* antolatuta da. Bertan, elkarren arteko ezagutza aberasteaz gain, migrazioen fenomenora gerturatuko gara aniztasuna abiapuntutzat hartuz.

Ekintzak honako hauek izango dira:

=> **Solasaldia. Nola aberastu euskal mundua kultur aniztasunaren testuinguruan?** Hizlaria Patxi Juaristi. Soziogoltoa. EHUko irakaslea eta Euskaltzaindiako Sustapen Batzordeko kidea. Beasain

Helburua: egungo euskal gizartea, besteak beste modernoa, teknologikoa eta kultur anitza, nola garatzen da euskara eta euskal mundua. Zein erronka ditugu, nola kokatu eta zein tresna garatu, zein modu, nola aberastu beste kulturekin, nola euskal mundua eskaini?

=> **Bizi Istorioen Kontaketak:** Olaberria, Itsasondo, Ataun, Zaldibia eta Zegama.

Helburua: udalerriko pertsona ezberdinen esperientzia migratorioa ezagutu (jatorrizko lurraldeko gizarte egoera eta pertsonala, emigratzeko erabakia, harrera lurraldean edukitako zailtasunak, etab.) eta partaideen integrazioa herrian bultzatu.

=> **Film emanaldia:** Beasain.

Helburua: beste kultura batzuen errealitatea eta migrazioen fenomenoaren ondorioak ezagutu filmaren bitartez. *Goieniz Zinekluba eta Sustraietz Blairen* eskutik.

=> **Mundialito.** Nazio arteko futbol txapelketa: Ordizia.

Helburua: kirolaren bitartez elkartzea. Bat Egite Elkarre *Multikulturalaren* kolaborazioa.

=> **Gaztelekuak.** Aniztasunean heziz: Beasain, Ordizia, Itsasondo eta Lazkao.

Helburua: 12-16 urte bitarteko gazteek kultur aniztasunaren inguruan sentsibilizazio joko dinamikoak egin herri ezberdinetan.

=> **Jaima:** Lazkao

Helburua: arabiar kulturaren transmisioa tailer eta debate ezberdinen bitartez.

=> **Munduko Musiken Jaialdia:** Zaldibia

Helburua: musikaren bitartez kultur ezberdinetara gerturatu eta jai giroan ospatu.

=> **Kaixo lagun!:** Ordizia

Helburua: goierriar zahar eta berrien artean elkar ezagutzeko aukera eskaini kafe-tertulian baten bitartez eta klown baten animazioarekin giroari umorea erantsi. Bukaeran klownklusioak egingo dituzte.

- **Formazio / Sentsibilizazio Kanpainia.**

Aniztasunaren Kudeaketa eta Elkarbizitzarako Goierriko I. Planaren helburuei jarraituz, Harrera Sareko eragileei formazioa eskainiko zaie aniztasunaren kudeaketa eta sentsibilizatorako erremintak eskainiz. Formazioa honako hau

izango da:

- 1.- Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzerritarrak
 - 2.- Herritarren parte-hartzea eta immigrazioa
 - 3.- Balore kulturalak lanean
 - 4.- Etorkinak orokorrean eta adin txikiko haur eta gazteak kargu daukaten familia etorkinekin gizarte lana
- Informazio gehiago www.goierri.org (agenda)

Ikasketan oinarritutako herritarren-partehartzea

- **IKASIZ – Goierri eta Urola Garaiko Ikaskuntzarako Bitartekotza Zerbitzua**

- Adimen Emozionalean oinarritutako ikastaro berri bat antolatu da. Ikastaro hau, krisi egoera bizitzen ari garen momentu honetan gure baliabide pertsonalak indartzen erakusten digu. Ikastaro berriaren zehazkizunak:
 - 20 pertsona gehienezko taldea.
 - Iraupena: 30 ordu
 - Data: urriaren 14tik abenduaren 2ra
 - Orduetgia: 17:00tatik 19:00tara
 - Kostua: Doan

Ikasiz zerbitzutik eskaeren arabera ikastaro espezifikoak antolatzen dira, baina ikastaro hau egiteko 50 pertsona baino gehiago erreserban daudela ikusirik, hurrengo urterako beste bat antolatzea da gure asmoa (2010 otsailean)
- Herritarrei arreta zuzena: orientazio, aholkularitza eta jarraipena (72 eskaerei erantzuna eman zaie, horietako 26 aktiboak izaten jarraitzen dutelarik)
- Ikaskuntzarako eskaintza oro biltzen duen Web orria mantendu: www.hiru.com/ikasgida. Ikaskuntza Sarea osatzen duten entitateek www.goierri.org/eu/area_social/ikasiz_red_aprendizaje/ Goierri eta Urola Garaiko ikaskuntza eskaintzak bidaltzen dizkigute ikasgidako web orrian informatizatzeko.
- Agente berriekin harremanak egiten jarraitu eta 2010 ikasturte berriari begira, entitate ezberdinen eskaintza berri (akademiak, kultur sailak,...)

Esperientzia eskola

- **2009 – 2010 Esperientzia eskolako ikasturtea martxan jarriko da.**

Jesus Torquemada, kazetariak politika internazionalari buruzko saioa emango du. Obamaren lehenengo urtea boterean, Afganistaneko egoeraren eboluzioa, Saharako gatazka, edo eta Europar Batasuneko egungo egoera beste gaien artean aztertuko dira.

- **Eguna: Urriak 6,7 eta 8.**
- **Tokia: Beasaingo Udaletxeko batzar aretoan.**
- **Ordua: goizeko 10etatik 13etara.**
- **Urriak 16, ostirala.** Esperientzia eskolako ikasturteari hasiera ekimena egingo zaio eta ikasturtea amaitu duten ikasleei diplomak emango zaizkie. Egun hau aprobetxatuko dugu, pasa den ikasturtea amaitu dutenei, diplomak emateko.
 - **Tokia:** Ingenieritza Unibertsitateko areto nagusian.Ordizia
 - **Ordua:** goizeko 11etan.
- Parte hartzeko **matrikulazio epea zabalik** izango da oraindik. Aukera ematen

zaie zalantzan dauden pertsonen eskolako saio batzuetara animatzeko Urriko hilabetearen eta gustatuko zaien jakiteko proba egitea.

Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa

- Ekainean egindako azken bileraren ondoren. Gizarte kontseiluan lan komisiok eratzeko proposamena egin zen. Honela, **adineko pertsonen inguruko komisiok** izen eman du jendeak. Abendura bitartean komisiok honetan nola lan egin dezakegun pentsatuko da.
- **Emakumearen komisiok** bildu zen Irailan. Eskualdean emakumearen inguruan lan egiten duten agenteak bildu ginen bertan. Alde batetik komisiok hau, egiten denaren informazioa elkartrukatzeko egiten da eta bestalde eskualde mailako egoeraren hausnarketa bat egiteko ere. Farapi kontsultoraren bitartez emakume elkarteek azterketa bat burutuko dute, honela, tailer ezberdinen bitartez emakumearen inguruko egoeraren inguruan hausnarketara bideratu da eskualdean.



AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutx 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/ 943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierrri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ekonomia, 7. zenb., 2009ko iraila

Zertan ari gara?

- Lankidetzaren Sarea bezala izendatu dugun kolaborazio ekimenaren barnean, **Enpresa Txiki eta Ertainen Foroaren** dinamizazioan dihardugu. Hainbat izan dira ospaturiko bilerak eta azken hiru hilabeteetan akzio plana jarri dugu martxan; alde batetik, komertzializaziorako baliabideak garatzea helburu duen proiektua jarri dugu martxan, foro hau osatzen duten enpresek komertzializazioaren inguruko kurtso batekin hasi dutelarik proiektuaren lehen fasea. Bestetik, enpresa traktore eta hornitzaile arteko lankidetzaren garatzea helburu duen proiektua lantzen hasi gara, GET Gune izena hartu duena. Proiektu honen helburua, Goierriko enpresa traktore eta enpresa txikien arteko lankidetzaren proiektuak bilatu, dinamizatu eta kontrolatzeko sistema sostengarri bat sortu eta kudeatzea litzateke. Horretarako, eskualdeko Enpresa Traktoreen Foroa antolatuko dugu urte bukaera baino lehen, euren parte hartzea nahitaezko baita honetan guztian.
- Eskualdeko **Enpresa Sarearen Mapa Birtuala** martxan da gure webgune berrian. Bertan, eskualdeko industria-gune orotako enpresa bakoitzaren informazioa dago eskuragai, bakoitzaren kokapen geografikoari loturik. Gida honek, enpresa ororen mapa eguneratu eta dinamikoa izateko helburua du eta beraz, eguneraketa horretan lanean jarraituko dugu, enpresentzako kosturik ez duena.
- Goiekin urteetan egin izan dugun moduan, Goierriko ETEei bideraturik dagoen **Hausnarketa Estrategikorako** lantaldea jarri zen maiatzean martxan eta uda aurretik amaitu zen. Aholkulari baten laguntzaz, enpresa bakoitzak bere hausnarketa propioa garatu du eta beraz, euren egunerokoan geldialdi bat egin eta etorkizunerako erronka berriak zehazteko aukera izan dute.
- Lankidetzaren sarearen dinamizaziorako euskari modura, Orkestratik (Lehiakortasunerako Euskal Institutua), **eskualdeko sare** hauek sustatzeko interesa duten garapen agentzia guztiei eskainitako jardunaldiak antolatu dira. Bertan, gainerako esperientzien berri izateaz gain, sare hauen oinarri teorikoak ezagutu, etorkizunari buruz hausnartu eta praktikan oso erabilgarri diren dinamikak ezagutzeko aukera izaten ari gara. Azken jardunaldia uztailean ospatu zen eta gure proiektua definitzen lagundu digu; hain zuzen, urrian ospatuko den azken jardunaldian honen aurkezpena egin eta zalantza eta arlo zehatzak gainerako parte-hartzaileekin kontrastatzeko aukera izango dugu.
- Berrikuntza Gune berriaren inguruan, Goiekiko Inkubategia esperientzia gehiago ezagutzen ibili da, uztailean Sevillako Cartuka 93 parke teknologikoa bisitatu genuen. Bisita honekin amaitutzat eman dugu esperientzia berriak ezagutzearen tarte. Momentu honetan, jasotako informazio guztia bildu ondoren, Goierriko Enpresa Gune berria izango den proiektuaren hausnarketarekin jarraitzen dugu.
- Uztailak 31an Espainiako Gobernuan Zientzia eta Teknologia Guneentzat dirulaguntzak (ACTEPARQ 2009) eskatzeko azken eguna izan zen, bertan Goierriko Berrikuntza Gunea izango den proiektua aurkeztu dugu Goierriko Herrien Ekintza



INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Fundazioaren bitartez.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualdeko garapena bultzatzeko proposamena onartu zuen uztailen, honen ondorioz, Goiekiko Inkubategiak Enpresa Gune berriaren azterketa egiteko aukera izango du.

Zer gehiago?

- *Goierri zebakitan* izeneko atalaren etengabeko eguneraketarekin jarraitzen dugu. Bertan eskualdeko adierazle sozioekonomiko adierazgarrienak biltzen dira udalerrri, eskualde nahiz Erkidego mailarako (langabezia, inmigrazio, populazioa, ingurugiroa, etab). Honen ondotik, 650 adierazle inguru biltzen dituen datu basea dugu eskuragarri, **HIRI BEHATOKIA** izeneko proiektuaren baitan. Horrela, eskualdearen errealitatearen ikuspegi orokor bat eskaintzeko helburua duen tresna berriak martxan dira. Gainera, datu base honetatik eratorrita, egungo egoera sozioekonomikoari buruzko zenbait analisi burutzen ari gara.
- Eskualdeko enpresa sareari buruzko datuak biltzen dituen Gida Industrialaren berrizera goaz berriz ere urrian gure webgunean, hiruhilero egin ohi dugun modura.
- Goiekiko webgune berria: www.goierri.org. Bertan, agentziaren eskutik martxan jarritako ekimen orori buruzko informazioaz gain, gure egunerokoari loturiko berri, agenda, parte hartzeko foro eta beste hainbat eduki interesgarri eskuragarri egongo dira.
- Goiekiko Inkubategia, **enpresa ekimen berrien XIII. Sariketaren** antolakuntzarekin hasi da martxan, horretarako lehiaketa egitea posible egiten duten enpresekin harremanetan jartzen ari gara, hau da, enpresa babesleekin eta bide batez egungo egoera ekonomikoa kontutan izanik beraien iritziak eta inpresioak jasotzen ari gara.
- Datorren hilabetetan, Goiekiko Inkubategiak Iñaki Dorronsoro LKS-ko ikertzailearekin Berrikuntza Guneko Inkubategi berriaren bideragarritasun plana landuko dute.





AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutz 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/ 943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ingurumena, 7. zenb., 2009ko iraila

Zertan ari gara?

1. Mugikortasuna. Eskualdeko mugikortasun plana amaitu ondoren eskoletako garraioaren inguruko azterketa bat martxan jarri da. Azterketa honen bitartez, eskualde mailan dagoen eskoletako garraio zerbitzuak ezagutu eta eskola ezberdinen artean garraioa konpartitu daitekeen ikusi nahi da.
2. Agenda 21 industrial / Udalerria -Enpresa proiektua. Proiektu hau enpresei zuzenduriko ingurumen informazio eta aholkularitza zerbitzu batean oinarritzen da, bere helburua enpresei ingurumen betebeharrak ezagutzera emateaz gain, hauek aurrera eramateko doako laguntza bat eskaintzea delarik. Proiektu honen ekintza plana agorturik geratu denez ekintza plan berri bat diseinatzeari ekin zitzaion. Horretarako enpresa, udal teknikari, kargu politiko eta eskualdeko entitate ezberdinen beharrak jaso ondoren, gauzatu litezkeen 50 ekintza identifikatu dira. Ekintza hauen priorizazioa enpresa eta udal ezberdinen ordezkariez osaturiko lan talde batek egin du. Lehentasuna eman zaien ekintzekin 2009-2012 urteetarako ekintza plana osatu da; enpresei ingurumen arloan doako asistentzia ematen jarraitu, ingurumen arloan aurrera pauso nabarmenak ematen dituzten enpresak aintzat hartu eta abar.
3. Eskualdeko kirol instalakuntzetan ingurumen hobekuntzak garatzeko proiektuaren helburuak ingurumen legediarekiko egoera ezagutu, behar izan ezker zuzendu, eta ingurumen aspektuak identifikatu eta kuantifikatzea da. Horretarako lehen pauso bezala diagnostiko bat egingo da. Egoera ezagutu ondoren ingurumen hobekuntzarako helburuak jarriko dira, hurrengo hilabeteetan zehar gauzatu daitezkeen.



Zer gehiago?

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Udalsarearekin elkarlanean martxan jarritako GAP programa ekainean amaitu zen. Programa honen helburuak parte hartu zuten familiei ingurumen jardunbide egoki ezberdinez informatu eta sentibilizatzea zen. Eskualde mailan 478 familiek parte hartu zuten. Programa amaitu ondoren, [sari ezberdinen irabazleak](#) ezagutu dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako udalerrietako [tokiko ekintza planak neurtzeko IV. programaren emaitzei buruzko txostena](#) argitaratu du. Txostenean, 35 udalerriren (Arama, Beasain, Idiazabal, Itsasondo, Ordizia, Ormaiztegi) eta eskualde garapenerako bi agentziaren (horien artean Goieki) tokiko ekintza planak aztertu dituzte. Emaitzek erakusten dutenez, urteak pasatu ahala, Gipuzkoako gero eta udalerririk gehiagotan ari dira tokiko ekintza planak ezartzen, baina ezarpen-maila foru administrazioak ezarritako helburuen azpitik dago, oro har. 3 urteren ondoren eskualdeko ekintza planaren ezartze maila %30 da.
- Mugikortasuna. Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari eskualdeko mugikortasun planeko emaitza eta proposamenak aurkeztu zaizkio. Helburua, eskualdeko garraio publikoaren kontzesioa berritzerakoan planean landu diren proposamenak kontutan eduki ditzaten da.
- Goiekik bat egin du energia berriztagarriekin. Energia sarera bideratutako 17,28 Kwp-ko instalakuntza fotovoltaiko bat martxan jarri du Ordiziako Mallutz industrialdean dituen pabiloien teilatuetan. Instalakuntza 351m²etan banaturik dauden 60 moduluek osatzen dute, panel fotovoltaikoen teknologia *Thin Film* delakoa izanik. Sortzen den energiaren bitartez, atmosferara isurtzen diren 13 Tm CO₂ inguru gutxitzea lortuko da. Ekintza hau eskualdeko agenda 21 egitasmoaren barne kokatzen da, energia garbi eta berriztagarrien instalakuntzak sustatu eta CO₂ isuriak gutxitzeko helburuarekin.

